


Gorbeia Suzienen dorsalak eskuratzeko aukerea dago oindino

10. orrialdea

III. Erdu eta Musikatu Areatzan

Musbika Flamenco-jazz hirukotea, Bilboko Txistu Banda eta Musbika hari laukotearen oinarriko klasikoak entzun ahal izango dira Areatzan, AKKBk antolatutako Erdu eta Musikatu jardunaldietako kontzertuetan, bagilaren 16tik 18ra. Eta hilaren 20an, alkarteak bere eguna ospatuko dau, herri bazkaria, esku pelota partiduak eta Disk Breakers-en kontzertuagaz, besteak beste. 13. orrialdea



Umeak hainbat aukera herrietan antolatutako udalekuetan

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

232

2015eko bagilaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

GEDk hautestontzia ipini eban Diman

Bagilaren 6an, Gure Esku Dago herri ekimenak hautestontzi handi bat ipini eban Dimako plazan eta bozka sinbolikoa egin eben dimoztarrak, San Mamesen hilaren 21ean egingo danaren entsegu moduan.

Gainera, San Mameseko ekitaldian Dimak protagonismo berezia eukiko daua agindu eben.

Dimako plazan hautestontzi handi bat egoan, dimoztarrak josi eta sinatutako oihalez eginda. Amaituteko oihal bi falta ziran eta bertan josi ebezan hautestontzia amaituteko. Ondoren, batutako jenteak alkarri pasau eutsan gutunazal handi bat, eskutik eskura, hautestontzira bidea eginaz. Han gazte batek gutunazala sartu eban, bozka irudikatuz.

Aurretik, komunikadu bat irakurri eben Gure Esku Dagokoak eta esan eben, herri ekimen hau ez zala sortu erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, berau gauzatzeko baino. Orain erronka da noz eta zelan gauzatu dan eta 2016an herri galdeketea egitea espero dabe.

Orain urte bete eta erdi GED martxan ipini zanetik, Arratian egindako hainbat ekitaldiren argazkiak jasoten dabe egindako ibilbidearen laburpena. 8. eta 9. orrialdeak.



Dimako ekitaldia.

ARRATIA

Kamisetak salgai ipini ditu Zertuk

Zertu Kultur Elkartek, BEGITUREN kamisetak ipini dauz salgai 10 eurotan, 8 eurotan Begitu-laguntzat. Erosteke mezu elektronikoko bat bialdu behar da BEGITURA, neurria zehaztuz. 7. orrialdea



ARRATIA

Sanjuanak eta sanpedroak

Hamabostaldi honetan bete-betean sartzean gara jaietako sasoian. San Juan jaiak Bedia eta Ubideko herriko jaiak dira, baina suak Arratiako auzo eta kale askotan biztuko dira, txarra erre eta ona gordetzeko. Sanjuanak amaitu eta sanpedroak hasiko dira, ajea oindino guztiz pasau barik dagoanean. San Pedro jaiak Arantzazu eta Dimako herriko jaiak dira, baina honeek be beste auzune askotan ospatuko dira, Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barbarako. 5., 6. eta 7. orrialdeak



BEASKOk eskerrak emoten deusuez arratiar guztioi 30 urteko hartu-emonagaitik. Eta jarraitzen dogu...

Sabino Arana 13 · 94 673 68 10 · Igorre

ARRATIA

Udal barriak eratu dira

Bagilaren 13an udal barriak eratuteko osoko batzarrak egin ziran. Arratia, Ubide eta Zeberion, sei alkate barri dagoz. EH Bilduko sei alkate dagoz: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Lemoan. Artean, EAJ-PNVk 3 zinegotzi aterabaz eta EH Bilduk eta Aldatuz Plataformeak bina, baina alkate izateko botoa EH Bildukoari emon eutsien honeek. EAJ-PNVk hiru alkate ditu gure eremuan: Bedia, Zeanurin eta Zeberion, hain zuzen. Ubiden, Ubideko Arnasako (UA) zerrendaburua da alkate. 6. orrialdea



ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskeraz zein erderaz
Agirre Lehendakaria 11, 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: uzuluaga@gmail.com

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

LEHENENGO ARKITEKTO ARRATIARRAK

Ikasketa teknikoak XIX. mendean hasi ziran arlo akademikoan, Arkitektura esate baterako. Beraz, lehen arkitekto titulauak orduan izentau ziran. Arratiar bi aitatu doguz, lehenengoak izan ziralako gure inguruko herrietan lanak (eraikuntza publikoak, arkitektura zibila eta zerbitzuetakoak) egiten urte hareetan modan egoan estilo artistiko kultuan, hau da, neoklasikoan: Kristobal Bernaola eta Pedro Luis Bengoetxea.

Kristobal Bernaola Bernaola Diman jaio zan 1798. urtean. 1823an Igorren ezkondu zan Josefa Larrinaga Ipiña 1803an jaiotako andra igorretarragaz, eta Igorren be bizi izan ziran euren hiru seme-alabakaz. Madrilgo San Fernando Errege-Akademian arkitekto titulua

atera eta gero 1829an, lanpostua lortu eban 1831n Santanderren, hango Udal arkitekto plazea betez. Baina denpora gitxi emon eban beharlekuan: uritarrak haserre egozan Bernaolak eginiko "Atarazanak zubia" izenekoa ez zalako euren gustukoa (diru gitxi egoan-eta, oholezko zubia egin behar izan eban). 1833an kargutik dimitidu eta Bizkaira bueltatu zan.

Bizkaian hainbat proiektutan parte hartu eban: Dimako lehen kanposantua egin eban 1841ean; Zeberioko Andra Mari ermitasantutegiko kruzeroaren gaineko kupulea 1844an; 1857an Otxandio Plazan frontoia; eta 1867an Ubideko Madalena auzoan iturria, besteak beste. Bernaolaren lanen artean, Dimako Elexalde kanpo-

santua izan da handiena eta gogoratuena (Euskadiko Monumentu Nazionalaren kategoria daukan eraikina da). Gaur egun baina, sarrerako atea eta kanposantuaren goialdean dagoan kapera, antzinako era klasikora eginekua, dira elementu original bakarrak.

Pedro Luis Bengoetxea Ipiñazar Zeanurin jaio zan. Ez dakigu zein urtetan, ez dalako konserbetan bateo-partidarik eleiz artxiboan. 1850. urtean ezkondu zan Zeanurin bertakoa zan Altzibar Torreko Petra Altzibar Abasolo andregaz, eta zazpi seme-alaba izan eban, danak jaiok eta bateatuak Zeanurin. Pedro Luisen gurasoak zeanurizarrak izan ziran, eta Pedro Luis bera be Zeanurin bizi izan zan, Asteriako auzo-kofradian, bere aitaren aldeko Gandasegi Bekoa, Bekoetxeta edo "Torrea" izenakaz ezetuten zan etxean (gaur egun Landatzi).

Bengoetxearen lanen artean honeexek azpimarratuko doguz:

Zeanuriko udaletxea 1852koa; Zeanuriko Andra Mari eleizearen ondoko ortusantua egiteko ardurera 1854-55ean, baina ez eban bete, hainbat arazo sortu ziralako; Mañariako udaletxea 1858-60koa; Areatzako Eskolak 1862ko urtean eginak (argazkia: udaletxea da gaur egun); 1867an, Igorreko Antonio Santuen Gurutze-tokiaren sarreran lanean ibili zan; 1880ean, Areatzako San Bartolome parrokan

be konponketak egin ebazan; eta 1885ean, Dimako kanposantuaren zabalkundea egin eban.

P. L. Bengoetxea 1897. urtean hil zan Zeanurin. Eta hiru urte beranduago, 1900. urtean, bere koinatua, Juan Bartolome Altzibar, Zeanuriko parrokoa zana, izan zan Gorbeia tontorrean burdinezko kurutzea jartzearen aldeko bultzatzailea.

Angel Larrea Beobide



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 15etik 21era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 22tik 28ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 29tik garagarilaren 5era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandio korrik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

"Zein da gazte prekariedadearen prezioa?" artikuloari Josune Gorospe, Mankomunidadeko presidentea emoneko erantzunari buruz:

Hasi baino lehen, argi itxi gura dogu Arratiako Emaikoak ez daukagula joko honetan sartzeako asmorik, baina Josune Gorospek idatzitako erantzuna irakurri ostean, erantzun beharrean ikusi gara.

Harrituta? Harrituta geratu ei dira urteetan zehar heritarren parte hartze barik egindako politika aurrera eroan dabenak, politika horreen desegokitasuna salatzen danean. Heritarrakandik urrun hartzean diran ebatziak aukera hori daukie. Guk, gure aldetik, onartuten dogu ez garala Mankomunidadea hurbildu eretxia emotera, baina noz izan da ba Mankomunidadea gazteontzat gune parte hartzaile bat? Halanda be, ez zan parte hartze eza mahai gainera atera gura genduan gaia.

Harrituta? Harrituta gu gelditu gara Josune, zure gutunaren ildotzat guk EAJ-PNVren kudeaketearen inguruan eginiko salaketa bat hartu dozunean. Gure idatzian momentu baten be ez jako EAJ-PNVri aitamenik egin, Arratiako Mankomunidadeari baino. Dana dala, norberak jakingo dau zergaitik sentiduten dan hain identifikautia. Eta, zergaitik ez doguzan salatu Sopuertan, Sopelan... egindako antzeko ekimenak? Guk Arratian lan eta bizi

gura dogulako, eta gure erantzunkizuna eskualdean instituzinoak martxan ipinten dabezan programai buruzko irakurketea eta, beharrezkoa bada baita salaketea be, egitea dalako, beste batzuen artean. Gure idatzia ez dago alderdikeria edo hauteskunde klabean idatzita. Holan ulertu bada, "kasualidadez" praktiken programa hau hauteskunde bezperan aurkeztu dalako izango da. Eta guk argi dogu, zuon kudeaketea gure miseria dala. Halanda be, EAJ-PNVren kudeaketea Mankomunidadean ez zan mahai gainera atera gura genduan gaia.

Harrituta? Harrituta gu gelditu gara Josune, "Zein da gazteen prekariedadearen prezioa?" izeneko artikulu baten erantzunean prekariedadea ia aitatu be ez danean egiten. Gazteen arazo larienetako baten inguruan (zoritarrez, kriminalizazioa eta errespresioa be arazo larri doguz eta, maiatzaren 18an Gasteizen ikusi zan lez) idatzi gura genduan, langabezia eta instituzinoetatik eskeintzen jakun urtenbidez: prekariedadea.

Praktika beka horrek, astean 30 orduko lan jardunagaitik, hileko 460€ko ordain saria eskeintzen deutse programan parte hartuko daben gazteai. Kontuak ateratea erreza da, gitxigora behera 3.5€ orduko. Horrek baldintza duinak dira? Soldata hori ez da prekariora? Zoritxarrez, holako lan eskeintzak errealidade bihurtu dira gazteen artean, etorkizunean dana konponduko danaren berbeagaz eta, bitartean, oin, egoera prekario batetara kondenauz. Baina gu ez gara etorkizuna, oraina gara, oraina duintasunez bizi gura dogun gazteria. Josune, hau bai da mahai gainera atera gura genduan eztabaida, gazteok gaur egun

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Bagil

BAGILA												
A	M	E	E	B	Z	D						
						1						
2	3	4	5	6	7	8						
9	10	11	12	13	14	15						
16	17	18	19	20	21	22						
23	24	25	26	27	28	29						

Urtearen seigarren hilabetea da bagila. Gero eta gitxiago entzuten dogun berbea da (bagile eta bagille, agoskatuta). Batuaz, ekaina da. Bagilak zera esan gura ei dau: ebagi + hila. Bedar-ebatea da sasoi honetako beharrik garrantzitsuena. Bagileko egunik argitsuotan, bedarrak hazita egon ezker, ebagi ostean, soloetan sute bat egiten da zaborrakaz eta konjuru batzuk esaten dira: horixe da sanjuanetako hilearen jai magikoa.

pairatuten dogun egoera. Horregaitik zintotasunez, lehen artikulu hori bariro be leidutera konbidatuten zaitugu eta gazteok jasaten dogun prekariedadeaz hausnartutera. Gure helburua ez dalako inor leku onean edo txarrean ixtea, edo alderdikieretan sartutea, baizik eta Arratiako gazteai erakustea prekariedadea uste baino hurrago dagoala eta kontzientziak astindutea.

Atzenik aitautetea, Mankomunidadeari kritika egitean, herria dala galtzaile; hau da, instituzinoak herriagaz, Arratiagaz, parekatutea lekuz kanpo irudituten jakula. Egun, instituzinoak arrotz eta urrunak dira, heritarren parte hartze bakoa eta podere bat kudeatzera dediketan dana. Demokrazia parte hartzaile bat martxan jartzean, botere guzti hori herriari itzulitakoan, herria danean herria gobernauko dauana... parekatu ahal izango doguz instituzinoak herriagaz.

Bitartean, prekariedadearen aurka, burujabetzarako bidean, sistemeak instituzinoetan bahitutako poderea heritarro itzultzerako bidean... gazteok martxan!

ARRATIAKO ERNAI

Nire eskerrik beroenak Zeanuriri

la urte bat igaro bada be, Udalbatzaren aldaketa aprobetxauz, eskerrak emon gura neuskioz Zeanuriko herriari eta bere ordezkaria dan Udalari, igazko Andra Marietan Zeanuri izenburua erorian nire margolanen erakusketa egiteko emon eusten aukereagaitik. Bertan, herriko irudiak biltzen ebezan 40 margolan aurkeztu nebazan.

Alde batetik, margolan horrek egiten nebazan bitartean herriko jentea eta bazterrek ezetuteko aukerea izan neban. Bestalde, Felipe Materola argazkilaria handiaren argazkietan be oinarritu nintzan eta Manterolatarrak eskerrak emon behar deutesdaz euren argazki artxiboa erabilteko emon eustezan erreztasunengaitik

Herri osoari nire esker ona adierazoteko, Udalaren esku geratu da erakusketako margolanetako bat —jadanik batzar aretoko horman eskegita dagoana—, Plazea izenburua daroana hain zuzen be. Beraz, nire eskerrik beroenak Zeanuriri.

ANTONIO ALDAMA

ERETXIA



ANDONI BELDARRAIN
Kazetaria

Zorionak C.D. Arratia

C.D. Arratia futbol taldeak Ohorezko Mailara igotea eta Lehenetasun Mailako liga irabaztea lortu dau denporaldi honetan, eta gure bailarako talde honen zaleak garanoi ilusino handia egin deusku. Ez da futbol talde bat soilik, gure bailararen ordezkaria da, sentimentu bat be bada. Ligako txapeldun izatean, hainbat oroitzen etorri jatazan burura, txikitatik gaur egunera arte Arratia futbol taldeagaz bizi izan dodazan hainbat momentu.

Umetan, eskolan, futbiton jokatzen genduan, eta amets moduko bat zan Arratian jokatzea. Aitagaz Gezalara joaten nintzan partidua ikusten oso txikitatik eta zaletzen hasi nintzan. Athleticen bazkidea izan baino lehenagotik naz Arratiako bazkidea eta horregaitik egin deusta hainbesteko ilusinoa aurtan mailaz igoteak eta liga irabazteak. Zenbat partidua ikusiko nebazan aitagaz batera, ehunka partidua, eta geroago anaia biak be hasi ziran zaletuten. Amak, aldi, ez deutso futbolari guk deusagun zaletasuna, baina gure sasoiaren jokatzen genduenon ama guztien modura, gure partidua ikusten ebazan, entrenamentuko erropak garbitu, astegoienetako partiduetako motila egiten lagundu eta gu aguantetako meritua eukien. Beraz, eurak be gure bailarako futbol taldearen parte izan dira, eta izango dira.

Liga txapeldun izentatzea eta Ohorezko Mailara igotea lortzea gauza handia izan da, eta hainbat oroitzen ekarri deustaz. Urte ona izan da aurtengoa, baina talde honeguz momentu onak, txarrak, poztasunak, negarrak, ilusinoak, desilusinoak... danetik bizi izan dogu, eta jente asko etorri jata burura. Arratia taldearen barruan egon diran jokalar asko

etorri jatazan burura, nire umetako denporan nigaz taldean jokatuten eben lagun asko, taldetik pasa diran presidente eta zuzendaritza batzorde guztiak, entrenatzaileak, zaleak...

Talde honetan beharrean eta lagunduten ibili dan jente asko etorri jata gogora. Zuzendaritza Batzordeak egiten daben beharra izugarria da, bai gaur egun egon dagoanarena, baita lehenago egon diranena be. Jenteak uste baino gaxtagoa da lan hori, baina funtsezkoa da. Ordu asko sartu, hainbat mailatako taldeak gestionau, federazinora joan, hainbat lan egin eta ez dago bat be balorauta. Gero eta ume gehiago, gero eta talde gehiago dagoz maila txikitetan, eta lana gero eta handiagoa da. Gainera, arazoak gairiditu eta aurrera ateraten dabe lan zail eta gogor hori. Gitxi eskertzen dan lana dala iruditzen jata, baina benetan txalagarria da. Hemetik, nire zorion be-roena egindako behar itzelagaitik.

Hainbat entrentzaile be pasau dira gure taldetik. Nik maitasun handiz gogoratzen dodazan bi, Mendilibar eta Fernando Perez dira, egon diran onenak nire ustez. Klub honeri lagunduteko beharrean ibili diran lagun asko etorri jatazan burura. Kerman, Gorka, Mikel, Manex... Partiduz partidua taldea animetan egoten diran lagunakaz be gogoratzen naz. Titulu eta igoera hau gehien sentidu dauan personetako bat Oier nire laguna izan da. Berak Arratiagaitik daukan sentimentua harrigarria da, berbakaz deskribidu ezin daitekera.

Momentu honeetan, gure artean ez dagozan eta Arratiari lagunduten edo bertan jokatzen ibili dan jentea be etorri jata burura, eurak be klub honen historian dagoz eta. Eulalio, Julian, Isidro, Kaiku... ez dagoz gure artean gaur egun, baina dagozan tokitik titulu eta igoera hau barruan sentidu dabela argi daukat. Zelan ez, igoera eta ligako titulua lortu dauan taldeko jokalaria, entrenatzaile, fisio eta prestatzaile guztiak zoriondu gura dodaz. Eurak izan dira jomuga hau lortu dabenak, eta meritu handiena euren da duda barik.

Egun itzela izan zan Arratiak liga irabazi ebanekoa eta poztasun handiagaz ospatu genduan. Datorren urtean Ohorezko Mailan egongo da taldea. Sufridutea tokauko jaku, baina Urbietan egongo gara, taldea animetako prest, betiko moduan. Gitxi izango gara akaso, baina barrubarrutik animauko dogu gure taldea.

Zorionak eta eskerrik asko denporaldi polit honegaitik. Aupa Arratia!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpresak Batzua jaino

MONDRAGON

LUMATUTEN

MAIALEN
MADARIAGAEtorkizunaren
giltzea

Milaka apunte, koaderno bigunduetako orrien artean kabidu ezinean. Dana prest. Baina denporea faltan. Erlojuaren trostari lasterketa irabazi guran gogoratzen dodaz arrasti luzeak, irakiten egoan flexo haren azpian. Tik bakotxean itxaropen eta ilusinoaren kilimak sentiduten nebazan magalean, indar eta kemenaren oihua. Tak guztietan ezintasuna eta larritasuna itolarriaren ostein; negarrez hasi eta inoz ez gelditzeko gogoak kukuka atearen zirikitutik.

Hara iritsi eta kaosa. Galapadak koridore amaibakoetatik zehar, urduritasunaren txotxongilo sentiduz. Barbaro artegatuaren zurrumuru zana melodia, orien atzen laztanak bilatzen genduzan artean. Txuleta beti prest, pare bat bale-riana iruntzi eta aurrera. 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7; bukatu da azkenean. Poza, juegea, lasaitasuna, irriak, jantza. Holan gogoratzen dot ditxosozko selektibidada.

Zazpi azterketa eta nota soil bat dira gure etorkizunaren giltzea. Urduritasunez betetako frogak, zure jakintza osoa islatzeko oztopo baino ez diranak askotan. Eta hiru egun horreetan zorte txarra izan ezker, seguruenik akabo; ametsari agur esan eta dagoanagaz konformau beharra. Hala bada, non gelditzen da gure etorkizuna erabakitze eskubidea, aukeratzeko askatasuna?

Arazoa ordea, ez da hor geratzen. Izan be, nahikoa da prestakuntza akademikoa ikasketa horreek egitea merezi dogun ala ez erabakitze? Nork daki bada, psikologoa izango dan horrek enpatia zer dan ba ete dakian? Medikua izan gura dauala dinoanak pazientearen alde egingo dauan? Edota ikus-entzunezko ikasleak sormena lantzeako abilezia zein gogorik badaukan? Zer dakigun aitzu eta zer garan begiratu beharko geunke.

Aurtengoa be ailegau zan. Eta joan da. Antzeko malko, urduritasun, galdera eta itxaropenez beteriko kafe eta pilulak etxeko armairuetan. Pozak eta frustrazioak frutu. Eta orain askoren esperoa, dana eginda dagoanean etxotea soilik gelditzen da; itxaropena da eta atzen gertatzen dana.

ZERTZEAN



IBON IZA

Gaia jarrita: "Igorreko jaiak"

1

Txiza kale etzean ametsak errekan gu han ibiltzen ginen Igorren jaietan "Herrikora" hurbildu Ta "Hodeira" bueltan gero amaitzen genuen Gaztetxean ketan Aitormena dantzaten ordu txikietan.

2

Begirada gogorrez Heavyaren posez "Iluntzen" bazterrean zigarro zorrotzez "Rammstein", "Clawfinger" eta gero "Guns and Roses" eztarriak bustita kalimotxo hotzez etxera joaten ginen gustura ta pozez.

3

Gogoratzen dut ondo "Etxarpa"-ren martxa eta goiko txosnetan egoten zen hatsa Iñigo, Jose, Lander Lami eta Atxa "Herriko"-n amaitzea ez zen gauza gaitza dantzaten kortaturen "Azken guda dantza".

4

Temple of the dog, Black Crowes Pearl Jam ta Soundgarden goizeko zazpiretan gu ez geunden Garben gaztea izatea nork ez daki zer den hankak zoli eta bizi ta garuna garden karpa baten alboan beti "carpe diem".

5

Ezagutu genuen hamabi ta bata Macedaren España eta manten Malta "Sabado cine", Eva Nasarre jiraka Levis "bostehun ta bata"-k amnistian txapa igual egosi erdi orduan be falta.

6

Rip-en nobia zena "La polla"-ren Amen denak etortzen dira urteen ondoren gazteak gazte dira bai orain ta bai lehen kritikatu beharrea hain sarritan hemen gogoratu dezagun gu zer izan ginen.

BEGI TXINDORRA

Bizkaiko Eskolarteko Txapelketaren finala jokatu eta Bertso Eskolen Eguna ospatu zan Igorreko Kiñu Gaztetxean bagilaren 6an. Gaztetxoak "oinak buruan" ibili ziran bertsoakak olgetan. Goizean, idatzizko finala jokatu zan. Han, gaztetxoek neurtu ziran, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasita DBHko laugarren mailara arte, mailaz maila. Ondoren, irabazleen talde argazkia atera eta bat-bateko finala jokatu eben nagusiagotxoak. Finalisten artean Lur Ziarrusta dimoztarra egoan, baina Bizkaiko txapela Txaber Altubek jantzi eban.

Sari banaketaren ostein, bertsolari gazteak alkarregaz bazkaldu eben Kiñun bertan.

Ez zan hor amaitu jai. Arrastian, zazpi bertso eskolek prestatuak ikuskizuna egon zan eta ondoren, erromeria.

Antolatzaileak, gurasoak eta bertsolariak danak ikasi eben gauzatxo bat: ondo pasetako beharrezkoa dala munduari bueltea emotea eta oinak buruan ipintea.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Blokaia
T. 94 631 50 39
Hilabeteko Zerbizua: 900
R.P.S. 21/06

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

begitu
amalia utzide ezberria

UBIDE

Arbola eta sua Ubideko jaietako protagonista



Erredakzioa

Arbolaren bila basora joatea izango da Ubideko jaietako lehenengo ekitaldia. Urtero lez, herritarrak arbol handi bat moztuko dabe eta herriko plazara eroango dabe bertan altxatzeko. Eszenalekua eta txosnak montetako beharrak bagilaren 12an egingo dabez herritarrak jai giroan eta ondoren bokadilloak egongo dira muntaketa lanak egin dabezanentzat.

Bagilak 20, zapatua
12:00etan, arbolaren bila joateko plazan bildu.
14:00etan, arbola altxau ondoren janari eta edari trukea txarangeagaz girotuta.

20:00etan, parrilada herrikoia (euro baten truke).
21:30ean, pelota jaialdia: Sevilla-Beobide vs Mikel Rafael-Agirre, eta Jagoba-Eneko vs Yera-Angulo.
Ondoren, guatekea Blue Mikys-egaz eta kontzertuak Eskean Kristö eta Tarantistak Martxan DJagaz.

Bagilak 23, martitzena
22:15ean, sua eta Esti eta Olatz kantariak.

Bagilak 24, eguaztena
Goizetik hasita puzgarriak eta haur jolasak.
12:30ean, kopaua eta trikitixea.
20:00etan, erromeria Joxe Mendizabalegaz eta parrilada herrikoia (euro baten truke).

IGORRE

Hiru zauritu Igorreko jaietako lehenengo astegoienean

Erredakzioa



Bagilaren 8an, astelehenez, Ertzaintzak bezperan adin txikiko bat arma zuri batez zauritu eban gizona atxilotu eban Zeanurin. Gertaerea domeka goizaldean izan zan, Agirre Lehendakaria kaleko taberna baten goizaldeko hirurak aldean. Zauritua Gurutzetako Ospitalera eroan eben.
Igorreko jaiak ziran eta taberna bete-beteta egoan. Ertzaintzak emondako informazioaren arabera, adin txikiko familiagaz geratuta egoan eta taberman sartzean, eskuan labana eukan gizon batez gurutzatu zan. Labanagaz kontuz ibilteko esan eutsan mutilak eta labanaduna ukabildada bat emoten saiatu zan. Gazteak saihestu eban eta ondoren erasotzaileak labana sartu eutsan ezkerreko sorbaldan.
Adin txikiko ospitalera eroan eta salaketea ipini eben familiakoak. Ertzaintzak ikerketea zabaldu eta hurrengo eguneko gauean atxilotu eben Zeanurin ustezko erasotzailea.

Kotxe batek lagun bi harrapatu
Ez zan hori izan Igorreko jaietako goizalde horretan gertatutako gertaera penagari bakarra. Izan be, Igorreko Jai Batzordeak jakitera emondakoaren arabera, kotxe gidari batek persona bi kolpatu eban eta gesean joan zan.
Zauritua ospitalera eroan eban. Batek orkatila apurtuta dauka eta besteak buruan golpe bat. Etxean dagoz orain biak, baina buruko golpeak behaketa medikua behar dau.
Igorreko Jai Batzordekoak zauritua laguntza emon eutseenak zoriondu eta jentea animau eban jaietan "parte hartzean eta gozatu-ten" segidu eian.

BEDIA

Bediako 2015eko San Juanak
Bagileak-Junio 14, 19, 20, 21, 22, 23, 24

Domeka 14
14:00-17:00: 22. San Juanak...
17:00-18:00: 22. San Juanak...
18:00-19:00: 22. San Juanak...
19:00-20:00: 22. San Juanak...
20:00-21:00: 22. San Juanak...
21:00-22:00: 22. San Juanak...
22:00-23:00: 22. San Juanak...
23:00-24:00: 22. San Juanak...

Barikua 19
19:00-20:00: 19. Barikua...
20:00-21:00: 19. Barikua...
21:00-22:00: 19. Barikua...
22:00-23:00: 19. Barikua...
23:00-24:00: 19. Barikua...

Zapatus 20
12:00-13:00: 20. Zapatus...
13:00-14:00: 20. Zapatus...
14:00-15:00: 20. Zapatus...
15:00-16:00: 20. Zapatus...
16:00-17:00: 20. Zapatus...
17:00-18:00: 20. Zapatus...
18:00-19:00: 20. Zapatus...
19:00-20:00: 20. Zapatus...
20:00-21:00: 20. Zapatus...
21:00-22:00: 20. Zapatus...
22:00-23:00: 20. Zapatus...
23:00-24:00: 20. Zapatus...

Domeka 21
11:00-12:00: 21. Domeka...
12:00-13:00: 21. Domeka...
13:00-14:00: 21. Domeka...
14:00-15:00: 21. Domeka...
15:00-16:00: 21. Domeka...
16:00-17:00: 21. Domeka...
17:00-18:00: 21. Domeka...
18:00-19:00: 21. Domeka...
19:00-20:00: 21. Domeka...
20:00-21:00: 21. Domeka...
21:00-22:00: 21. Domeka...
22:00-23:00: 21. Domeka...
23:00-24:00: 21. Domeka...

Astelehena 22 Umeen eguna
12:00-13:00: 22. Umeen eguna...
13:00-14:00: 22. Umeen eguna...
14:00-15:00: 22. Umeen eguna...
15:00-16:00: 22. Umeen eguna...
16:00-17:00: 22. Umeen eguna...
17:00-18:00: 22. Umeen eguna...
18:00-19:00: 22. Umeen eguna...
19:00-20:00: 22. Umeen eguna...
20:00-21:00: 22. Umeen eguna...
21:00-22:00: 22. Umeen eguna...
22:00-23:00: 22. Umeen eguna...
23:00-24:00: 22. Umeen eguna...

Martitzena 23
17:00-18:00: 23. Martitzena...
18:00-19:00: 23. Martitzena...
19:00-20:00: 23. Martitzena...
20:00-21:00: 23. Martitzena...
21:00-22:00: 23. Martitzena...
22:00-23:00: 23. Martitzena...
23:00-24:00: 23. Martitzena...

Eguaztena 24 SAN JUAN
12:00: 24. Eguaztena...
13:00: 24. Eguaztena...
14:00: 24. Eguaztena...
15:00: 24. Eguaztena...
16:00: 24. Eguaztena...
17:00: 24. Eguaztena...
18:00: 24. Eguaztena...
19:00: 24. Eguaztena...
20:00: 24. Eguaztena...
21:00: 24. Eguaztena...

Zapoak eta sugeak erre, artoak eta gariak gorde

Erredakzioa

San Juan kantuak dinoan lez, gauza txarrak erre eta onak gordeko dabez San Juan bezperan suaren inguruan batzean diranak. Hilaren 19an hasiko dira sanjuanak Bedian.

Bagilak 19, barikua
20:00etan, jaien hasikerako txupinazoa trikitixegaz eta dultzaineagaz alaituta. Ondoren, sardina jana.
21:30ean, Egan, Zeinke, Play Back-a eta Egan. Mozorro gaua.

Bagilak 20, zapatua
12:00etan, VIII. Paella Lehiaketarako izen emotea.
14:00etan, paellen aurkezpena.
17:00etan, kuadrilen arteko VII. Olinpiadak.
17:00etan, Mus Txapelketea Batzokiak antolatuta.
22:00etan, Nik Khaos, Kaotiko eta Babel Covers.
Autobusa Arratiara, Galdakaora eta Zomozara 02:30ean eta 04:30ean.

Bagilak 21, domekea
11:00etan, II. Antxinako auto eta motorren erakusketea.

12:00etan, pintxo-pote trikitixegaz alaituta.
18:30ean, Marxel magoa.
20:00etan, zunbatoia.

Bagilak 22, astelehena Umeen Eguna
12:00etatik 19:30era, puzgarriak eta jokoak.
17:00etatik 19:30era, puzgarriak, tailerrak eta bitsa. Dastamen tailerra.

Bagilak 23, martitzena
17:00etan, Briska Txapelketea.
18:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen emotea.
20:00etan, tortillen aurkezpena.
20:00etan, Jokaldi taldea.
21:00etan, herri afaria.
22:30ean, Jokaldi taldea.
23:15ean, zapoak eta sugeak erre.
24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, eguaztena
12:00etan, meza nagusia.
18:00etan, Igel Txapelketea Laguntasuna tabernak antolatuta.
19:00etan, korru jantzak.
20:00etan, mariatxiak.
21:00etan, txokolatea jaiak amaiera emoteko.

UBIDE

Jai batzordeak eta Ubideko Udalak

Gora Ubideko jaiak!

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK

ETXERA

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

BEDIA

Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ARRATIA

Sua eta parriladak auzuneetan

Erredakzioa

Bedia eta Ubideko herriko jaietan biztuko dabe San Juan sua. Baita Areatzan, Arantzazun edo Lemoako Tallerretan. Zeanuriko Altzuan, Igorreko San Juanen edo Dimako Oban sanjuanak ospatuko dabez; Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

Altzua (Zeanuri)**Bagilak 20, zapatua**

15:00etan, txupinazoa.

21:00etan, auzo afaria. Izen emotea hilaren 15a baino lehenago.

Bagilak 21, domekea

12:00etan, meza nagusia, jantzariak, bertsolariak, zozketea eta barauskarria.

18:00etan, Bola Txapelketea eta umeentzako jokoak.

Bagilak 23, martitzena

21:00etan, sardina jana, txokolatea eta San Juan sua.

Bagilak 24, eguaztena

12:00etan, meza nagusia. Baraus-

karria eta jaien amaierrea.

San Juan (Igorre)**Bagilak 19, barikua**

20:30etan, txupinazoa.

21:00etan, auzoko aparkalekuan pintxo-potea.

21:30etan, erromeria. Joselu Anayak.

Bagilak 23, martitzena

20:00etan, ermitako lanak inauguratuko: parriladea, euskal erromeria eta sua.

Bagilak 24, eguaztena

12:00etan, meza eta trikitilariak. Iraia eta Ane.

Elorriaga (Lemoa)**Bagilak 27, zapatua**

12:00etan, meza.

13:00etan, barauskarria.

13:15etan, herri kirolak.

14:00etan, Igel Txapelketea nagusientzat eta Dardo Txapelketea umeentzat.

14:00etan, Paella Lehiaketea.

17:30etan, Mus Txapelketea.

19:00etan, Bola Txapelketea.

20:00etan, txitxi-burruntzia.

ARRATIA

Arratiako Eleizearen errogatibea andren bozari pisua emoteko izango da

Erredakzioa

Bagilaren 20an ospatuko da aurten Urkiolan Arratiako Eleizearen errogatibea, andrak eleizan daukien papela gaitzat hartuta. Erromesak oinez edo autobusez joango dira bertara. Oinez doazenak Dimatik 06:00retan edo Zeanuritik 07:30ean urtengo dira. Autobusez joateko parroketan emon behar da izena.

Zeanuritik eta Dimatik Urkiolara oinezkoentzako ibilaldiak gidatuak

izango dira eta aurten, Zeanuritik Urkiolara bidea zuriz eta beilegiz, ibilbide labur (PR) moduan, markauta egongo da, aprilean Joko Alaiko Alkarteko boluntario talde batek seinalizau eban eta; errogatiba eguna bide horren inaugurazioa egiteko aprobetxauko da.

"Emakumea eleizan: egiteko bidea"

Frantzisko Erromako Pontifizeak, aprilaren 15eko katekesian gehiago egin behar dala andren

alde esan eban. "Ezinbestekoa da andrai entzutea. Baina ez hori bakarrik: bere bozak benetako pisua eta agintea izan behar dau gizartean eta eleizan bertan" esan eban. Helburu horregaz egingo dabe Urkiolan errogatibea Arratiako Eleizakoak.



ARRATIA

Sei udalerritan eskuz aldatu da makilea

Erredakzioa

Bagilaren 13an eratu ziran hauteskundeen osteko udal barriak eta alkateak izentau ebezan. Hauteskundeetan botorik gehien lortu eben zerrendaburuak izango dira Arratiako udalerrri guztietan, Ubiden eta Zeberion alkate, Artean izan ezik. Izan be, Artean EAJ-PNVk 3 zinegotzi lortu ebazan, EH Bilduk 2 eta Aldatuz Herri Plataformek beste bi. Atzen formazio bi honek akordio bat lortu eben, Igor Etxaniz EH Bilduko Arteko alkatea izateko. Holan, udala eratu teko plenoan Bildukoari emon eutsiezan botoak, eta botoakaz batera, Arteko alkatetzera.

Alkateak

Bedian, Igorren, Lemoan eta Ubiden, aurreko legegintzaldiko alkateak jarraituko dabe agintzen; hau da, hurrengoz hurrengo, Aitor Sorriketak (EAJ-PNV), Beinat Anzolak (EH Bildu), Saioa Elejabarrietak (EH Bildu) eta Joxean Pagolak (UA). Beste herrietan, barriz, aginte makilea eskuz aldatu da. Holan, Arantzazun, Bego Llanok (EAJ-PNV) Igor Menikari (EH Bildu) pasau eutsan makilea; Areatzan, Josu Basozabalek (EAJ-PNV) Asier Garcari (EH Bildu); Artean, Alberto Etxebarriak (EAJ-PNV) Igor Etxanizeri (EH Bildu); Diman, Rafa Ugaldek (EH Bildu) Nekane Intxaurtzari (EH Bildu);

Zeanurin, Izaskun Sagarnak (EAJ-PNV) Eusebio Larrazabaleri (EAJ-PNV), eta Zeberion, Ana Belen Alberdik (EH Bildu) Karlos Idirineri (EAJ-PNV).



Asier Garcia eta Josu Basozabal.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

DIMA

Topaguneak Diman euskerea bultzatzeko proposamena egin dau

Erredakzioa

Soziolinguistika Klusterrak egindako atzen azterketak erakusten dabe euskerearen indizea % 80tik gora daukien udalerrietan, euskereak behera egin dauala 1981tik 2011ra. Joera hori ikusita Euskaltzaleen Topaguneak egitasmo integral bat diseinatu eta Dima eta Gatican martxan ipintea eskeini dau. Bagilaren 5ean, Dimako zenbait eragilegaz batu ziran Topaguneakoak eta hurrengo batzarra baino lehen, proiektuagaz konprometiduko dan persona talde bat bilatzekotan geratu ziran Dimakoak.

Egitasmoa udala, herriko eragileak, BFA eta UEMA alkarlanean egitekoa da. Euskerearentzat arnagunea diran herrietan bilakaera negatiboa izan dau euskerearen erabilereak. "Udalerrri euskaldunak EAEn: Egoera eta bilakaera 1981-

2011" Soziolinguistika Klusterrak egindako atzen azterketaren arabera, Dimako euskerearen indizea % 87,4 da, baina 1981tik 2011ra hizkuntza gaitasuna ia 11 puntu jeitsi da (% -10,9), lehen hizkuntza euskerea daukien ia 24 puntu (% -23,7) eta etxean euskerea nagusi erabilten dabenen portzentajea % 22, 5 jeitsi da.

Euskerearen erabilerea handitzeko

Topaguneak diseinutako egitasmoak, euskerea darabilen herritar kopurua eta lehen hizkuntza euskerea daukien biztanle kopurua handitzea da. Hori lortzeko lau ekintza nagusi proposatzen dabez: sensibilizazio tailerrak, euskaltzaleen artikulaziorako gogoeta prozesuak, euskerearen kriseilua (familien arteko euskereagazko konzienzia handitzeko) eta guraso eta umeentzako tailerrak.



Topagunekoak Dimako eskolan egindako batzarra.

ARRATIA

Zertu Kultur Elkarteak udarako kamiseta barriak salgai ditu

Erredakzioa

Orain hiru urte atera ebazan Zertu Kultur Elkarteak BEGITU-ren kamisetak eta udeari begira kamiseta barriak ateratea ebatzi dabe Zertukoak. Oraingoan salgai ipini ditue kamisetok eta edonork erosi leikez 10 euroko prezioan. Begitu-lagunak, barriz, 8 eurotan.

Igorreko Kiñu Gaztetxeko Eizu Change Azokan egon ziran salgai bagilaren 14an. Egun horretan ezin izan ebenak erosi eta erosi gura dabena, BEGITURA bialdu behar dabe korreo elektroniko bat neurria adierazoz. Kamisetak baltzak dira danak eta, hemengo errotetan erabilten ebezan zenbakiak daukiez irudi moduan. Aurrean zenbaki bat eta atzean, errotetako batetik ehunera bitar-

teko zenbakiak, hain zuzen be.

Beste azoka batzuetan be egongo da erosteko aukerea.



DIMA

Erromeriak eta musika tropikala Dimako jaietan



Erredakzioa

Bagilaren 25ean botako dabe txupina Diman herriko jaiak hasikerea emoteko. Ondoren, San Pedro egunera arte, ondo pase-tako aukerez betetako lau egun. Zapatu gauean, Akatz taldeak, Dima tropikal bihurtuko dau bere ska eta berbena jamaikar estiloko musikeagaz. Geroago, Enkore taldeak be Kalifornian sortutako hardcore melodikoa joz, udako gauen xarma ez sentidutea gatx egingo dabe. Oxabi, Obaneuke eta Ikerrek eta bere konpainiak, barriz, ipiniko dabe erromerietako musikea. Euskal Herriko Ingude Txapelketea, andrazkoetan, be jokatu da hila-ren 26an.

Zuzenketea

Erredakzioa

BEGITUKO 231. zenbakiko 7. orrialdean, Udal Hauteskundeetako Dimako datuetan, EAJ-PNVk hiru zinegotzi atera ebazala agertzen da. Ez dira hiru, lau baino EAJ-PNVk Diman dituan zinegotziak.

01:00etan, erromeria Obaneuke taldeagaz.

Bagilak 27, zapatua

11:00etan, umeen duatloia.

14:00etan, herri bazkaria.

17:00etan, kuadrilen arteko probak.

18:30ean, eskupelota Open, frontenis eta eskupelota Open.

20:30ean, talo dastaketea.

21:00etan, Fabe de Fuka kale animazioa.

23:00etan, Idems.

00:00etan, euskal preso eta iheslarien aldeko ekitaldia.

01:00etan, kontzertuak: The Uskys eta Akatz taldeak.

02:00etan, Enkore taldearen kontzertua.

Bagilak 28, domekea

13:00etan, euskal jantzak.

14:00etan, Paella Lehiaketea.

19:00etan, bertsolariak: Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Unai Iturriaga eta Alaiia Martin.

20:45ean, antzerkia, *Koka kola eta barea*.

Bagilak 29, astelehena

12:00etan, mezea.

13:00etan, 85 urtetik gorakoentzako omenaldi bazkaria.

15:30ean, erromeria Iker eta bere konpainiagaz. Narbaiza bertsolaria eta txiste kontalaria.



DIMA



Jai batzordeak eta
Dimako Udalak

Gora San Pedroak!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

GURE ESKU DAGO

Dima protagonista izango da San Mameseko ekitaldian

Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko ekimeneko Dimako taldeak, dei berezi bat egin eutsen dimoztarrai bagilaren 6an. Herriko plazan hautestontzi erraldoia egoan eta bozka sinbolikoa egin eben bertaratutakoak, San Mamesen bagilaren 21ean egingo dan antzera.

Erredakzioa

Gure Esku Dago (GED) herri ekimena ez zan jaio erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko, hau gauzatzeko baino, eta erronka orain da zelan eta noz gauzatu eskubide hori. GEDkoen arabera, prozesu horretako protagonistea jentea da. "Guk eraikitzen dogu, gure erabakitzeko eskubidea, geurea da, eta guk eroango dogu aurrera" esan eban Ainhoa Latatu GEDko Dimako taldekoak.

San Mameseko ekitaldian, Dimak protagonismo berezia hartuko daua be iragarri eben GEDkoak.

Dimako ekitaldia

Dimoztarrak erantzun eutsien deialdiari koral koloreko kamisetak jantzita. Herriko plazan, Xabier Etxebarriak bertso batzuk bota ebazan eta komunikadua irakurtari ekin eutsien. Gero, bukatu barik egoan hautestontzia amaitu eben herritar bik, oihal bi josiz eta ondoren, gutunazal bat sartu eben hautestontzian, bozka sinbolikoa eginaz.

Hautestontzia egiteko, 30 tela josi dabez Diman, "ia 600 lagun den desioakaz". Eta hau danau "alkarlanean eta sensibilitate desbardinak batuz".

Holan, Diman, maila txikian,

**Bozka sinbolikoa Diman.**

bagilaren 21ean San Mamesen egingo dana irudikatu eben. San Mameseko ekitaldirako sarrerak eta kamisetak be egon ziran salgai.

Urte eta erdiko beharra

2014ko martian hasi ziran Arra-

tiako herrietan "kolore desbardinetak" jentea batzean, GED ekimenean, eta erantzun handia izan daben ekitaldiak egin dabez harrezkerotik. Ekitaldirik jentetsuena 2014ko bagilan egindako giza-katea izan zan. Arratiari jagokon kilometroa Arakilen egoan eta Zeberiori, Legazpin egokitu jakon giza-kateako kilometroa. Bertara joateko 23 autobus urten ziran Arratiatik eta Ubide eta Zeberiotik bana.

Aurten, bagilaren 21ean San Mamesen egingo dan hautestontzi erraldoirako, oihalak josi egin dira Arratiako herri gehienetan. Joste eguna apirilaren 24an izan zan Lemoa, Areatza eta Zeanurin; Diman maiatzaren 9an, eta Igozren maiatzaren 26an.

Beharra ez da amaitu

Gure Esku Dago ekimenak, erabakitze eskubidea gauzatzeko asmo sendoa dauka eta urburuetan egingo diran bozka sinbolikoak ez da beharra amaituko. Hori dala

eta, urrietan deituko dabez barriro herritarrek danon artean ekimenari segida emoteko.

**Dimako ekitaldia.****Xabier Etxebarria bertsotan.**

E P A
Galdakao
www.epagaldaokao.com
Matrikuletako epea,
bagila osoa.
Tifn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

BICIS CAS
Arratiarron
dendea

BICIS CAS BIZI
www.bichamoredieta.com • AMOREBIETA-ETXANAO

JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

TXIMINIA
GARBIKETAK
696 27 42 00
www.goikogarbi.com



Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendietan, s/n. 48550 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 090 481830 / 090 200717

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ARKEITEGLI
GAY & LORA
IGORRE

15eko DESKONTUA
LEHENENCO LURTERO KURTAN
SESOREAK
basolo Emaldi
FARMACIA ADMINISTRATZAILA
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

TXIRRINDULARITZEA

Igor Garcia Gorositok irabazi eban ZeberioXTrem luzea eta Manu Quintanilla laburra

Erredakzioa

290 txirrindularik hartu dabe parte aurtengo ZeberioXTrem BTT lasterketan. Bagilaren 7an, Igor Garcia Gorositok irabazi eban 43 km.ko martxea eta Manu Quintanilla Igorrekoak, 32 km.koa. Ondoren Luis Zubero txirrindulari profesional izandako zeberioztarrari omenaldia egin eutsien.

Eguraldiak lagundu egin eban eta Galizia, Asturias, Madril eta Euskal Herriko hainbat txokotatik

etorritako partaideak batu ziran Zeberion proban parte hartzeako. Andra gitxik hartu eben parte, hamabik baino ez. Probaren ondoren Luis Zubero omendu eben bertarutakoak.

Luis Zubero

Luis Zubero Aldekoa Zeberion jaio zan 1948an eta zazpi urte egin ebazan txirrindulari profesional moduan (1969-1976). Urte horreetan, Frantziako lau Tourretan; Italiako 3 Girotan; Espainiako Vuel-



Luis Zubero.

ta baten eta Mexikoko Joko Olimpikoetan hartu eban parte.

MENDI LASTERKETEAK

Gorbeia Suzien Ternua Herrikoia sortu da



Gorbeia Suzien Ternua Herrikoien ibilbidea.

Erredakzioa

Gorbeia Suzien Ternua Mendi Lasterketea 2015 Zeanurin izango da urri lehenengoaren 27an, aurten lehenengoz domekaz. Bertan parte hartzeako izen emotea bagilaren 1ean zabaldu zan eta 27 ordutan lasterketa nagusiko dorsal guztiak (500) saldu ziran. Itxaron zerrendan oraindino izena emoteko aukerea badago. Halanda be aurten antolatzaileak Gorbeia Suzien Ternua-z gozatze-ko beste modu leunago bat proposatzen dabe lehenengoz, eta Gorbeia Suzien Ternua Herrikoia sortu dabe.

Lasterketa nagusia Gorbeia Suzien Ternua-ren plater nagusia da: 32 km, 2.200 metro desnibel positibo eta Lekanda, Gorbeia eta Dulauko tontorrek zapaltzen ditu. Baina badago ibilbide laburragoa egiteko aukerea eta hain gogorra ez dana: 22 km ditu ibilbide herrikoiak, eta tontorren hegaletatik doa. Lasterketa hau Gazteak eta maila apalagoa daukien korrikalariak egingo dabe; izan be, gazteentzat lasterketa nagusiak baldintza teknikoak gaintu egiten ditu, federazioen arauen arabera.

Herrikoia: ibilian zein galapan

Ibilbide honetaz gozatze, Gor-

beia Suzien Ternua Herrikoia egingo dabenak, gehienez 6 ordu izango dabez ibilbidea amaitzeko, familiagaz, lagunakaz edo bakarrik. "Kirol hau, ikasten hasi gura daben persona guztientzat aproposa da, ibilbidea ez da zorrotza eta gainera Gorbeia Parke Naturalean lehen mailako lasterketearen giroaz gozatzeko aukera ezin hobea da" dinoe antolatzaileak.

Ibilbide laburra galapan zein oinez egin daiteke. Ez da diru saririk emongo, baina lehenengo hirurak, gizonetako eta andrazko kategorietan, opariak izango dabez. Ibilbide laburreko parte-hartzaileak, lasterketa nagusiko parte-hartzaileak legez opari-boltsea jasoko dabe: Adrenalite serieko Ternua jaka (139 eurotan baloratua), eguneko bazkaria, opari bat eta zerbitzu eta ekintza guztiak.

BEGITUREN edizioa zarratzerakoan 97 dorsal baino ez ziran gelditzen Gorbeia Suzien Ternua Herrikoia egin ahal izateko. Antolatzaileak dei egiten deutsee arratiarri proba honetan izena emon dagien.

Lasterketatik harago Suzien Mendi Klubak aste osoko egitarau antolatu dau, oindino guztiz zehaztu barik dagoan arren. Ekintzok Areatza, Igorre eta Zeanurin izango dira.

Informazio gehiago gura dauanak www.gorbeiasuzien.com webgunera jo leike.

PELOTEA

Txumuluxuetak Euskal Herriko Trinkete Txapelketea irabazi dau

Erredakzioa

Bagilaren 13an jokatu zan Abadiñon Euskal Herriko Kluben arteko Trinkete Txapelketea. Peio Artolak eta Lur Ziarrustak, Dimako Txumuluxuetakoak, ekarri eben txapela Dimara, Hernaniko klubeko Berasarte eta Arizmendi pelotariak 40 eta 11 irabazi ostean.

Arratia-Nerbioi B2

Aurreko zapatuan, bagilaren 6an, Arratia-Nerbioi B2 Txapelketako finala jokatu zan Diman eta etxe-koak lortu eben txapela Umeak kategorian.

Final hau Aurreumetxuak, Umetxuak, Gaztetxoak eta Gazteak kategorietan jokatu zan. Txumuluxueta izan zan final honetara heldu zan Arratiako pelota eskola bakarra. Txapela Iraitz Duranak eta Xabier Rekaldek lortu eben Usansoloko pe-

lota eskoleari 2-1 irabazi ondoren.

Nesken Eguna

Bagilaren 14an, Emakume Pilotarien Eguna ospatu zan Zeanurin. Bertan Bizkaiko neska pelotariak,

Eskola Kirolekoak eta federauak batu ziran. Arratiatik, Areatzako Pelota Eskolakoak eta Zeanurikoak hartu eben parte Bizkaiko Pilota Federakuntzak antolatzen dauan jai honetan.



Peio Artola eta Lur Ziarrusta txapelak jantzita.

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landerren O Jabetzen!

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE 17 - IGORRE

OPEL
Ibaigane, s. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

AZKOREA/SEGA

Alatzne Etxaburuak irabazi eban azkora eta sega posturea

Tolosarrak Irati Astondoa zeanuriztarrak baino 217 bedar kilo gehiago moztu ebazan, desafioa irabaziz.



Irati Astondoa azkoran.

Erredakzioa

Irati Astondoak minutu bat eta 53 segundu atera eutsazan arren Etxaburuari azkora proban, gipuzkoarra bizkaitarrari nagusitu jakon segan eta proba irabazi eban. Izan be, 1.496 kilo ebagi ebazan eta Astondoak 1.279. Desafioa Zizurkilen izan zan bagilaren 7an.

Ordubetean 45 ontzako lau enbor ebagi eta ahalik eta bedar gehien moztu behar eben kirolariak. Astondoak "dana emon arren" errez irabazi eban Etxaburuak. Lehenengo aldia zan andrazko bi azkora eta segan neurtuten zirana apustua tartean egonda, eta desafioa ikusle asko izan ebazan. Zizurkilen 700 ikusle inguru batu ziran eta ETB1ek be emon eban

neurketea.

Segan nagusitu zan tolosarra
Desafioa azkorako lanagaz hasi zan. Lehenengo enborra mozteten lehenago amaitu eban Etxaburuak, 7 segundu lehenago, baina bigarren enborra moztuta aurrean jarri zan Irati Astondoa eta aldea handituten joan zan. Holan, ia minutu bi lehenago hasi zan segan arratiarra.

Ordubete egin arte egin behar eben segan eta horretarako baktak sei sail euki ebazan ebagiteko prest. Kostata ekin eutsan Astondoak segari, Etxaburuak, barriz, errez eta laster jarri zan aurretik eta holan segidu eban proba amaitu arte. Etxaburuak irabazi eban desafio misto hau eta horregaz batera, posturea.

AZKOREA

Aitzol Atutxa txapeldunorde bosgarrenez Buruz Buruko Urrezko Aizkoran

Erredakzioa

Bosgarren urtez jarraian, Aitzol Atutxa bigarren egin eban Egur Sportek antolatutako Buruz Buruko Urrezko Aizkoran. Txapela, Iñaki Azurmendirentzat izan zan, honek irabazi eutsan-eta, dimoztarrari Azpeitiko (Gipuzkoa) Izarraitz pelotalekuan bagilaren 7an. Hirugarrena Donato Larretxea izan zan.

Azurmendik 30.03ko marka egin eban eta Atutxa II.ak minutu bat eta 55 segundu gehiago: 31.58, hain zuzen be. "Espero dot emon genduan ikuskizunaz

(jenteak) gozatu izana, holango parekotasuna egonda, penea en-

bor batek ebatzi izana!" dino Aitzol Atutxak bere facebook-ean.



Aitzol Atutxa.

RAID

Furgoneta eta autokarabana ugari II. Up-O Rogainen parte hartzeako

Erredakzioa

Bagilaren 6an izan zan Areatzan II. Up-O Rogaine orientazio proba. Antolatzaileak espero baino jente gehiagok hartu eban parte, 122 partaide 75 taldetan bananduta. Arratia eta Areatzako jente gitxi animau zan, baina Euskal Herriko txoko guztietatik, Asturias, Kantabria, Huesca eta Madriletik etorri ziran asko. Antolatzaileak autokarabana eta furgonetentzako lekua

ipini behar izan eben.

Lau ordutako proba izan zan. Partaideak ibilbidean zehar 30 baliza topau behar ebazan. Ibilbide luzeena 25 kilometrokoa izan zan. la danak balio gehien eukan baliza baten bila joan ziran: kobazulo baten egoana.

Aurtengo edizioaren balorazio "ezin hobea" egiten dabe antolatzaileak. "Partaideak oso pozik egon ziran, datorren urtean be egingo dogun galdezka" dinoe.



MARTXEA

Auzoz Auzo hilaren 28an Artean

Erredakzioa

Artea Kirol, Kultura eta Euskera Taldeak (AKKT) antolatuta, Artea Auzoz Auzo, udalerriko auzuneak eta bide zaharrak ezetuteko mendi martxea, bagilaren 28an izango da. Aurtengoa XIX. edizioa da eta betiko lez, ibilbide bi egongo dira aukeran: laburra 20 km. ingurukoa izango da eta luzea 30 km. ingurukoa. Luzea egin gura dabenak herriko plazatik urtengo dira 08:00retan eta laburra egin gura dabenak, barriz 08:30ean. Izen emotea herriko plazan bertan izango da martxea hasi aurretik.



Gratiasio Harri Irakastetxeak

Gure
irakastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

J.B. Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



AGUR JAIA

Arratia Institutuak agur jaia egin eutsen institutua amaitu daben ikasleai

Arratia Institutuak 25 urte daroaz D eredu hutsean eskolak emoten eta institutu barrukoa sare euskalduna bada be, kanpokoa ez dala hain euskalduna pentsetan dabe institutuko irakasleak.

Erredakzinoa

Horregaitik, "unibersidadera eta mundura" doan 47 inguruko ikasle taldeari, euskereagaz konprometiduteko, agur jaia egin eutsien maitzaren 26an.

Oraintsu arte holango jaiak ikastetxe pribaduetan bakarrik egin izan dira, baina aspaldi honetan inguruko institutuetan be hasi dirala egiten dino Juanxu Rekalde Arratia Institutuko irakasleak. Ekintza kultural bat izan da, "euskal kultureagaz konprometiduta gagoz eta ikastetxe honen ibilbidea

horixe da: persona zoriontsuak hezitzea, zoriontsu izateko bideak erakustea, eta hori euskeraz egitea" dino Rekaldek. Idea hori ikasleakaz konsultau eben eta honeek egitearen alde agertu ziran.

Sei urteko oroitzapenak

Agur jaiaren momenturik hunkigarriena izan zan ikasleak insitutuan egon diran urteetan zehar egindako argazki eta bideoen emonaldia. Ume sartu eta sei urte ondoren, askoz helduago ateraten dira institututik eta horren lekuko diran sei urte

horreetako irudiak ikusi ebezan protagonistak. Ondoren, ikaskide guztien orla eta zapi bana jaso eben institutua amaitu daben ikasleak.

Horren aurretik institutuko zuzendaritzaek hartu eban berbea, eta gero ikasleak eurak, euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez, serio eta umorez, institutua zer izan dan eurentzat adierazo eben. Irakasleai egindako txiste eta imitazioak be ez ziran faltau. Kantuak, jantzak eta bertsoak osatu eben jaialdia. Gauean, ikasleak jarraipena emon eutsien jaiari, alokatutako taberna baten.

**IKASTAROAK****UEUko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik****Erredakzinoa**

Hogeta hamalau ikastaro eta sei jardunaldi eskeiniko ditu aurten Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Ikastaroak bagilaren 29tik garagarilaren 22ra bitartean eta jardunaldiak bagilaren 6tik garagarilaren 3ra arte izango dira. Bizkaiko unibersidade ikasle eta unibersidade ikasle ohi langabetuak zuzendutako diru laguntza bat dago, kasu batzuetan matrikulearen % 100 kubriduten dauana. Diru laguntza Bizkaiko Foru Aldundiak emon eta UEUk kudeatuten dau eta hau jasoteko eskaerea UEUn bertan egin behar da.


Artea eta Musika, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, Ingeniaritza eta

Teknologia arlotako ikastaroak osotuten dabe aurtengo eskeintzea. Ikastaroak Eibar, Iruñea eta Baionan izango dira.



BERBALDIA

Boliviako andra indigenen egoerea



Alicia Canaviri Mallcu.

Erredakzioa

Alicia Canaviri Mallcu Giza eta Herrien Eskubideen aldeko aktibista boliviarrak, Boliviako andra indigenen egoerearen barri emongo dau bagilaren 22an, zazpiretan, Areatzako Emakumeen Foroko gelan.

Mundubat Gobernu Kanpoko Erakundeak ekarrita dago Canaviri Bizkaian eta Areatzako Emakumeen Foroak aukera hau aprobe-txau gura izan dau, nazinoartekoari begiratu bat emon eta Boliviako andren egoerearen barri izateko. Izan be, boliviarr jatorrizko arra-tiar asko dagoz. Gainera aurten Emakumeen Mundu Martxa da. Europan, martiaren 8an hasi zan Kurdistanen eta urri bigarrenaren 17an amaituko da Portugalen.

AISIA

Umeak oporretan dagozanean familiai lagunduteko, udalekuak antolatu dabez

Erredakzioa

Arratian eta Zeberion, udalak udako programazino zabala eskeintzen dabe. Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat herri udaleku edo udaleku irekietan, olgetan ibilteko eta astean behin urtekerera bat egiteko aukerea daukie 12 urtera artekoak. Gazte udalekuak be antolatuten dira hainbat herritan, irekiak eta itxiak, eta Nafarroan, Katalunian edo Belgikan egin daikiez egonaldiak gazteak aurtengo udan.

Arantzazu

Arantzazuko 6 eta 14 urte bitarteko ume eta gazteak bagilaren 28tik garagarilaren 5era Bertiz-era joateko aukerea daukie multiabentura eta kirola egiten. Bagilaren 28tik 1era kirola egingo dabe goiz eta arrastiz eta garagarilaren 2tik 5era lasaiago egongo dira Erratzuko kanpinean. Hiru talde egingo ditue edadearen arabera.

Areatza

Areatzan, Udalak 6 eta 12 urte bitarteko umeentzako antolatu dauz udalekuak. Bagilaren 29tik garagarilaren 10era izango dira eta lehenengo asterako bakarrik edo hamabostaldi osorako emon daiteke izena. Suspergintza alkartearen eskutik, umeak ariketa fisikoa eta trebakuntza jarduerak egingo dabez herrian eta inguruetarako urtekeretan.

Artea

Artea be, txanda bi egongo dira eta 40 umerentzako plaza dago txanda bakotxean. Bagilaren 23tik garagarilaren 4ra eta garagarilaren 7tik 17ra izango dira txandok. 4 eta 12 urte

bitarteko umeentzat dira udalekuok.

Bedia

Bedian, Txiki Txoko, udaleku irekiak eta Uda Gaztea programak ipiniko ditu martxan udalak. Bagilaren 29tik garagarilaren 10era izango dira Txiki Txoko eta udaleku irekiak eta garagarilaren 20tik 26ra Uda Gazteako bajea.

Dima

Diman, garagarilaren 6tik 17ra izango dira udaleku irekiak, goizeko 09:30etik eguerdiko 13:30ak arte eta 5 eta 12 urte bitartekoak hartu daikie parte.

Igorre

Igorreko udako programazino Zaztaparrak taldearen eskutik dator. Herri udalekuetan egongo dira 5 astez: bagilaren 24tik garagarilaren 24rarte. Urtekerera bat egingo dabe astero eta beste egunetan Igorreko landan egongo dira. Sendabedar tailerrak, akrobaziak, lupetzeko pistinak, tirolinak, lasaitasuna, jantzaleku eta karaokea, antzerkigintza... egingo dabe umeak udalekuetan espezialista baten laguntzeagaz. Herri udalekuen baitan 3 urtekoak be euren txokoa izango dabe Kultur Etxeko erakusketa gelan. Arrastietarako, Parkean Jolasean dinamikea antolatu dabe. Astean baten parketik atera eta urtekerera bat egingo dabe. Ez da aurrez apuntatu behar, soilik aste horretan egingo dan urtekerara astelehenetan bertan parkean emon beharko da izena. Gazteentzako udaleku irekiak be egongo dira garagarilaren 6tik 10era eta garagarilaren 17tik 22ra Kataluniara joango dira 14 eta 16 urte bitarteko gazteak. Hamasei urtetik gorakoak, barriz, Belgikara garagarilaren 24tik 29ra.

Lemoa

Lemoan udaleku irekiak bagilaren 23tik garagarilaren 10era izango dira. Honeek be Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Udalekuak 10:00etatik 14:00etara izango dira, eta astean urtekerera bat egongo da. Basajaunen ibilbidea egin, Bilboko kale antzerkia bisitatu, itsas museoa ikusi eta Gamarrako ugerlekuetara urtekerera egingo dabe. Lemoan gelditzen diran egunetan kiroldegiko aterpean eta herrian zehar ibiliko dira.

Gazte udalekuak bagilaren 24tik 27ra bitartean izango dira. Eta bagilaren 29tik 3ra udaleku itxiak. Bizikleta udalekuak izango dira honeek, Laidarra eta Lekeitiora joango dira eta bertan surf, ur jolasak, gaubelak... egingo dabez gazteok.

Garagarilaren 13tik 24ra ludoteka ibiltaria egongo da eta liburutegia be ugerlekuetara eroango dabe.

Zeanuri

Zeanurin bagilaren 22tik garagarilaren 17ra izango dira udaleku irekiak eta 6 eta 12 urte bitarteko umeak astebete, bi, hiru edo lau aste egin leikiez bertan, beti be, taldea sortzean bada; hau da, gixienez 15 umeak emoten badabe izena.

Zeberio

Zeberio be udaleku irekiak eskeiniko ditu 3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Bagilaren 22tik garagarilaren 3ra izango dira astelehenetik barikura. Aurten, nobedade moduan eta taldea sortu ezkerok, bagilaren 29tik eta garagarilaren 3ra arte, 12 eta 16 urte bitartekoentzat gazte udalekuak antolatuko ditue Tertangan.

AKKB

III. Erdu eta Musikatu kontzertuak

Erredakzioa

Bagilaren 16, 17 eta 18rako III. Erdu eta Musikatu antolatu dau Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak. Kontzertuak Udal Aretuan izango dira 20:00etan.

Lehenengoan, Musbika Flamenco-jazz-en eskutik flamenko estiloko Paco de Lucieren obrak entzuteko aukerea izango da. Perkusino, gitarra eta saxo hirukoteak joko dau kontzertu hau.

Hurrengo egunean, Bilboko Txistu Bandak eskeiniko dau kontzertua eta Jose Gutierrez konpositore eta abeslariak bandarentzako egindako proiektua aurkeztuko dau Areatzan.

Ziklo honetako atzen kontzertua, Musbika hari laukoteak emongo dau. Hari laukoteen oinarriko klasi-koak eskeiniko dabez.

Tradegin ikastaroa

Bagilaren 26, 27 eta 28an, barriz, tradizionozko jantza garaikide ikastaroa izango da Areatzako plazan. Ikastaroa Aiko taldeak UPV-EHUgaz alkarlanean antolatu dau eta UPV-EHUko uda ikastaroen bame dago. Jantza tradizionalen egungo ikuspegi ikasteko aukerea dago bertan.

AKKB Eguna

Bagilaren 20an, AKKB bere eguna ospatuko dau. Hori dala eta, herri bazkaria erreka ondoko pasealekuan egingo dabe, pelota partiduak, bingoa, karaokea eta abar. Izena 16 eta 17an emon behar da udalarekin.

DUNBA

Areatzako ikasleak Olinpiar Jokoetan

Bagilaren 2an, Areatzako ikasleak Arrankudiagara joan ginan Olinpiadak jokatzen.

Areatzako LH2ko ikasleak

"Olinpiadak proiektua" abiapuntuzat izanik, Olinpiar Jokoen antolaketan jardun dogu hiru eskoletan (Zeberio, Arrankudiaga eta Areatza). Holan, bagilaren 2an Arrankudiagako Iberlanda auzoan Zeberio, Arrankudiagako eta Areatzako 3. eta 4. mailako ikasleak Olinpiadak jokatu genduzan.

Urtero hiru eskoletako

topaketea egiten da, eta aurten 3. hiruhilabete honetan egin dogu; era honetan hiru eskoletako ikasle guztiak alkar ezetuteko aukerea izan dogu.

Topaketa honen bidez eta kirol praktika aintzat hartuz bardintasun, adiskidetasun, eta talde lanaren balioak landu doguz.

Kirol Olinpiko guztien artetik, guk 10 aukeratu genduzan: 50m lasterketea, 4x50m errelebo



Areatzako eskolako ikasleak.

lasterketea, diskoa, jabalina, eta pisu jaurtiketea, Hockey-a, tenisa, saskibaloia, eskubaloia eta luzera jauzia. Kirol honek, Iberlandan dagoan futbol zelaian

eta saskibaloia kantuan bananduta egin ziran. Lekua oso aproposa izan zan antolatu genduzan kirolak egin ahal izateko.

Ikasleok 10 taldetan banandu



eta antolatu ginan eta honeetako talde bakotxean 6 edo 7 ume inguru egon ginan. Eguraldi eguzkitsua izan zan eta asko nekatu arren oso pozik ibili ginan. Guztiok garaile izan ginan, ez zan dominarik egon eta horren orde izozki gozo bana izan genduan sarizat.

AGENDEA

BAGILAK 16
AREATZA

19:00etatik 20:00etara. AKKB Egunerako izen emotea udaletxeko 3. Solairuan. 20:00etan, Erdu eta Musikatu kontzertua. Musbika Flamenco-jazz hirukotea. Udal Aretoan.

LEMOA

Hilaren 26ra arte, Lemoako jaietako futbito, esku pelota, padel eta frontenis txapelketetan izena emoteko epea. Kiroldegian.

BAGILAK 17
AREATZA

19:00etatik 20:00etara. AKKB Egunerako izen emotea udaletxeko 3. Solairuan. 20:00etan, Bilboko Txistu Bandaren kontzertua Udal Aretoan.

BEDIA

18:00etan, diaporamea "Mundua hurbilduz" Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe. Liburutegian.

BAGILAK 18
AREATZA

20:00etan, Musbika hari laukotearen kontzertua Udal Aretoan.

BAGILAK 19
BEDIA

20:00etan San Juan jaietako txupinazoa. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

Liburutegia itxen da urri lehenengoaren 1a arte. Ludotekea itxen da.

IGORRE

Jaiak San Juan auzoan. 20:30ean, txupinazoa; 21:00etan, auzoko aparkalekuan pintxo-potea; 21:30ean, erromeria Joselu Anayak taldeagaz.

BAGILAK 20
AREATZA

AKKB Eguna. 13:30ean, poteoa; 15:00etan, herri bazkaria erreka ondoko pasealekuan; 17:00etan, bingoa eta karaokea; 19:00etan, umeen pelota partidua; 19:30ean, Udaberriko Esku Pelotako Txapelketako finala; ondoren poteo musikatua; 23:00etan Disk Breakers Gaztearen.

DIMA

06:00retan, Urkiolara oinez. Arratiako Eleizearen errogatibea.

UBIDE

Ubideko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

07:30ean, Urkiolara oinez. Arratiako Eleizearen errogatibea.

Altzuako jaiak; 15:00etan txupina; 21:00etan afaria.

ZEBERIO

09:00etan, Austari Mendi Taldeak antolatuta, Zeberio Ezagutuz V. ibilaldia. Upoko tontorrean buzoi barria ipini. Zubialden.

BAGILAK 21
LEMOA

Garazabalek antolatuta, goizeko urtekera Arratiatik.

ZEANURI

12:00etan, meza nagusia, jantzariak, bertsolariak, zozketea eta barauskarria; 18:00etan, Bola Txapelketea eta umeentzako jokoak. Altzuan.

ZEBERIO

20:00etan, zinea *Ciutat morta*. Udaleko 2. solairuan.

BAGILAK 22
AREATZA

19:00etan, Areatzako Emakumeen Foroak antolatutako berbaldia, "Boliviako andra indigenen egoera". Foroko gelan. Udaletxean.

IGORRE

Hilaren 26ra arte herri udalekuak. Lehen astea.

LEMOA

16:30ean, ikasturte amaierako festa eskolan.

ZEANURI

Garagamilaren 17ra arte, udalekuak.

ZEBERIO

Garagamilaren 22ra arte, herri udalekuak 3 eta 12 urte bitartekoentzat.

BAGILAK 23
ARTEA

Garagamilaren 4ra arte, udalekuak 4 eta 12 urte bitartekoentzat.

20:00etan, sardina jana eta San Juan sua.

DIMA

18:00etan, pelotea. Umeen finalak.

20:00etan, San Juan sua.

IGORRE

20:00etan, ermitak lanak inauguratuko: parriladea, euskal erromeria eta sua. San Juan auzoan.

LEMOA

19:00etan, umeentzako ekintzak. 20:00etan San Juan sua eta parriladea Tallerretan.

ZEANURI

21:00etan, sardina jana, txokolata eta San Juan sua.

ZEBERIO

Garagamilaren 3ra arte, udal udalekuak.

BAGILAK 24
IGORRE

12:00etan, meza San Juanen eta trikitilariak.

ZEANURI

12:00etan, meza. Ondoren barauskarria. Altzuan.

BAGILAK 25
DIMA

20:00etan, herriko jaiak hasikerea emoteko txupina.

Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 26
IGORRE/LEMOA/ZEBERIO


19:30ean, atzen banakua, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

Karabie Gazteak antolatuta, arrastian, Txokolatzeko Paintball herrikoa.

ZEBERIO

19:00etan urteroko batzarra. 20:30ean bistorra. 21:30ean kontzertua Erramun Martikorena.

BAGILAK 27
AREATZA

20:00etan The Groovy Peppers-en kontzertua The Quiet Corner-en.

LEMOA

San Pedro jaiak Elorriaga auzoan. 12:00etan,

meza; 13:00etan, barauskarria; 13:15ean, herri kirolak; 14:00etan, Igel Txapelketea nagusientzat eta Dardo Txapelketea umeentzat; 14:00etan, Paella Lehiaketea; 17:30ean, Mus Txapelketea; 19:00etan, Bola Txapelketea, 20:00etan, txiki-buruntzia.

ZEBERIO

07:00retan, astegoiaren pasa Peña Prieta eta Espiguetera-ra. Austarri Mendi Taldeak antolatuta.

BAGILAK 28
ARANTZAZU

Garagamilaren 5era arte udal udalekuak, 6 eta 14 urte bitartekoentzat, Bertiz-en.

AREATZA

09:00etan eleiz portikoan. Lamino Mendi Taldearen urtekera. Pagomakurre-Arranbeltza-Igalimintza-Lekanda-Araba-Pagomakurre. 12:00etan Arrabako errefugioan hamaketakoa AKKBkoen kontura.

ARRATIA

Arratiako Motor Taldeak ibilbidea Durangaldetik eta Arratiatik Ondoren, Medrano Jatetxean bazkaria.

ARTEA

Auzorik Auzo Mendi Martxea. 08:00retan marxa luzea, 08:30ean laburra.

BAGILAK 29
AREATZA

Garagamilaren 10era arte, Udalak antolatutako udalekuak.

BEDIA

Garagamilaren 10a arte, Udalak antolatutako Txiki Txoko eta udaleku irekiak.

IGORRE

Garagamilaren 3ra arte, herri udalekuak. 2. astea.

ZEBERIO

Garagamilaren 3ra arte Gazte Udalekuak.



Argazkia: Laurelia Cabreila.

Arratiako akrobata gazteak
Igorreko Lasarte Aretoan

Bagilaren 18an, arrastiko 18:30ean, zirku ikuskizuna eskeiniko dabe Arratiako 24 bat umek eta lau gaztek. Igorreko zirku tailerren, 6 urtetik 12 urtera arteko umeak eta 15 urtetik 30 urtera arteko gazteak akrobaziak egiten ikasten dabe. Egun horretan, ikasturtean ikasitakoa erakutsiko dabe publikoaren aurrean. Numero aereoak, oihalak, sokak, lurreko akrobaziak eta jantzak osotuko dabe ikuskizun hau.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukaldea. Biziten sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. la barria, hile bitan erabilia. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIRUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak

alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

BEHAR BILA

Igorretar euskalduna, ikasketaduna eta kotxeduna, urri lehenengoaren 1etik aurrera umeak zaindu eta etxea garbitzeko prest. Deitu 639 293 539 (Eider).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Suzien Mendi Klubak emondakoa kamiseteta.

Yazmina Beobide (Areatza)
Agustin Kamiruaga (Dima)



2 Axpe Goikoak emondakoa Garena txakolin kutxatxoa.

Iratxe Olabari (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Haragia saltzean dau. 2.- Bokala. Ardura. 3.- Birritan, asmo. Bits. 4.- Iparraldean, inguruan. Indioa. 5.- Nitrogenoa. Logaritmoaren laburdura. Konsonantea. 6.- Zidarra. Dimako auzoa. 7.- Erregalu. Emea ez dana. 8.- Azelga. Letra bat. 9.- Esaera.

GOITIK BEHERA

1.- Hortz. Ezen. 2.- Bokala. Euskera zaharrean, bakur. Ameseta. 3.- Nora atzikia. Ilargiaren egoera bat. 4.- Txakurak xaxatzeko hotsa. Oxigenoa. Jemengo uria. 5.- Kode. Min daukagunean. 6.- Argi ez dagoanean. Barioa. Bostehun erromatar. 7.- Narra. Abagune.

E	D	I	A	B	V	S	E	6	R	X	S	O	T	V	S	O
I								8	O	M	Z	O	K	O	L	A
T								Z	N	S	I	L	V	O	N	O
V								9	V	N	H	O	I	Z	Z	N
V	O	G	V					5	I	R	O	N	I	Z	Z	R
T								4	N	I	I	V	X	R	H	
N	I							3	I	O						
U								2	A							
L	A							1	H	A						
N	I							7	I	H	A					
6	7	8	9						1	2	3	4	5	6	7	8

Topau hegaz egiten ez daben zazpi hegaztiren izenak.

S	E	L	E	N	I	O	A	G	E
I	O	M	O	K	O	L	A	D	O
A	S	A	U	T	X	P	I	R	A
B	T	G	R	A	M	I	K	E	K
U	R	R	E	K	I	N	A	B	I
D	U	I	J	O	A	G	L	A	Z
I	K	Ñ	A	N	D	U	A	O	T
H	A	R	K	A	L	I	M	I	U
A	Z	T	E	R	A	N	O	R	I
B	I	P	E	Z	T	O	K	A	L
U	O	D	E	I	P	A	M	U	A
R	G	B	R	A	I	T	I	S	U
U	D	A	O	W	E	Z	T	A	R
L	A	M	I	A	R	O	Z	K	O
O	S	K	A	L	O	S	A	R	E

AKIMIKO

Aitziber

Autoestimurik ez, etxean arazoak dekodaz, ez dekot etorkizunerako helbururik, ez dakidez sentimenduek kudeatuten, harrapauta sentitan naz.



Bitu jentea pozik eta dantzan herriko jaietan.
Baten bateri arpeie apurtu behotzet, holan nire arazo guztiek konponduko direz

nire herri maiteari eskeinia

umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 52 96 • seimoda@hotmail.com

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 25

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balainak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@telefonet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unozuku@euskalnet.net

MAITE URRUTIA

"Bakotxa loratzen dan lekuan bizi behar da"

Artean harrapatu dogu Maite Urrutia aktorea. Madrilen bizi izan da atzenengo 7 urteotan, eta Los Angeles-era joan baino lehen, gidatzeko karneta Arratian ateratea ebatzi dau. Dana dala, Estatu Batuetara joan aurretik, Madriler a bueltauko da Sandra Suarez-en zuzendaritzapean film laburren trilogia baten bigarren pelikulea filmetako.

Bilbon jaio eta 12 urte izan arte Santurtzin bizi izan zan Maite Urrutia. Hamabi urtegez Arteara etorri zan biziten eta unibersidadera joan arte, hemen bizi izan zan. Arteaztarra da beraz Maite, ze Max Aub-ek esan ei eban legez, "personea batxillerra egin dauan lekukoa da".

Erredakzioa

Gaztetxotan Arratian Maite Requejo zinan, ezta? Zein da zure izena Maite Requejo ala Maite Urrutia? Maite Urrutia izen artistikoa dozu?

Nire izen artistikoa nire izena da. Requejo aitaren abizena da eta Urrutia da amaren parteko amamaren abizena. Amamagaz zeozer berezia daukat eta bere abizena eroan gura neban. Berari lotutako oroitzapen politik daukadaz, abegitsuak. Dana dala, orain dala urte asko aldatu neban izena, aktore lana serio hartu aurretik.

Artean 12 urtetik 18 urte izan arte bizi izan nintzan eta gero Gasteizera joan nintzan Ingeles Filologia ikasten. Beti nabil leku batetik bestera. Atzenengo zazpi urteotan Madrilen bizi izan naz eta orain Madril ixteko sasoia heldu jata.

Zelan Madrilen?

Aktore lanetako teknika hobetuteko joan nintzan. Gasteizen hasi nintzan antzerkia egiten baina zeozer falta nebala nabaritu neban. Zazpi urtez egon naz han, bost urte ikasten. Egiten dodan beharrean konfidantzea eukiteko behar nebazan ikasketa

horreek.

Orain Los Angeles-era zoaz, ezta? Zer egiteko asmoagaz?

Txikitatik beti izan dot kanpora joateko gogo eta ingelesa beti egon da nire bizitzan. Madrilen ikasketak amaitu nebazanean esan neban, "Madril ez da nire lekua". New York edo Los Angeles-era joatea pentsetan egon nintzan eta Los Angelesera joateko aukerea sortu jatan pasa dan neguan. Han film independente baten parte hartze txiki bat egin neban. Oraingo udan joango naz baina ez daukat ezer lotuta. Gauzak pausuz pausu egingo dodaz. Han nagoanean zer egin neinken ikusiko dot.

Arratiara etorri naz gidatzeko karneta ateraten. Beti gerorako itxi dot karneta aterateareana. Dirua euki dodanean, biajeran bat, ikasketak edo kursoren bat egin dot. Ez neban gidatzeko preminarik sentiduten. Baina orain, Estatu Batuetara banoa kotxea beharko dot.

Gatxa da aktore batentzat bizimodua Euskal Herrian ateratea? Euskal Herria txiki gertzen jako aktoreari?

Aukerak badagoz bizimodua Euskal Herrian aterateko, baina, nire

esperientziatik, bakotzak bere lekua topau behar dau. Badaukadaz lagunak Madrilen horretatik bizi diranak, baina Madril ez da nire lekua eta kanpora noa.

Euskal Herrian badagoz interpretaziotik bizi diran aktoreak. Antzerkia, telebista... beharra egon badago. Akaso beste leku batzuetan baino gitxiago, lekua txikiagoa dalako, baina hemen be atera leitezke bizimodua eta karrera profesional bat.

Hori bai, bakotxa loratzen dan lekuan bizi behar da.

Hamasei pelikulatan egin dozuz aktore lanak eta hamabi antzezlanetan. Film labur baten zuzendaria be bazara. Ze mota-tako lanak egiten dozuz, zeintzuk gustetan jatzuz gehien...

Zuzendari eta idazle lanak be egin dodaz, bai. Lanik ez dagoanean, asmatu behar da. Horregaitik antzezlan txiki bat idatzi eta filmatu egin neban. Gustetan jatazan gauzak nahiko independenteak dira. Gizakiari buruz zeozer ulertzeko lagunduten daben istorioak gustetan jataz. Persona normalai buruzko istorioak.

Gero beti emoten deuten papelek dira edo *femme fatale* edo justu kontrakoa, andra lotsatia, ez dana ausartzen aurrera egiteko pausak emoten...

Hau da, andren estereotipoak.

Bai. Niri askotan naizena baino gazteagoen papelek emoten deustez. Hori ez dago txarto, androk karrera askoz motzagoa daukagulako interpretaziotan. Hori gertatzen da gidogile eta zuzendari gehienak gizonak diralako. Badagoz andrazko gidogile eta zuzendariak, baina oindino gizonen mundua da hau.

Zein izan da egin dozuzan artean gehien hunkitu zaituan personajea?

Agian antzerkikoak. Antzerkian gehiago sakondu daiteke, ez bakarrik personajekaz, baita lantaldeagaz be. Pelikulak egitean askotan ez da ensaiorik egoten, etxean egiten da ensaioa; baina antzerkian lantalde osoa egoten da eta sakonagoa izan daiteke.

Antzerkian eta nire bizitzan, eraginik handiena izan dauan egilea Chejov da. *Hiru ahizpa* antzezlanak, barbarako. Lan horretako personaje bi egin dodaz, ahizta bi, Irina txikiena eta Masha erdikoa. Antzezlan hori Errusiako denpora konkretu baten dago girotuta, iraultza baino justu

arinago. Personen ametsak ez dirala beti beteten eta horregaz zelan bizi da antzezlanaren gaia. Bizitza ez da izaten espero gendua, bizitza modu egiten da.

Aktoreontzat sano ondo dagoz Chejov-en lanak. Behar sentsorial handia izaten dabe.

Egin dozuzan filmen artean zein da zure favoritoa?

Film laburrak izan dira gehienak. Film luzeai jagokienean, parte hartu dot Tinieblas Gonzalez-en film baten, baina gero ez zan atera; eta Estatu Batuetan egindako beste baten: *False Colors* (zuz.: William Norton).

Gauza desbardinakaitik baina pelikula bakotzak dauka zeozer eta ezin dot bat aukeratu. Akaso, *Otra vez te quiero* (zuz.: Denis Vingolea). Film labur hau oso esperimentalta zan, baina lan horretatik beste hiru lan atera ziran: *Anticafeterias* (zuz.: Jose Ilarraz), *Familia* (zuz.: Jose Ilarraz) eta *La noche constante* (zuz.: Sandra Suarez). *La noche constante* bideoklipa da. Lantalde horregaz oso pozik nago eta orain, Los Angelesera joan aurretik, Madrilen egingo dogu film labur trilogia bat Sandra Suarez zuzendariagaz.

Lan guztiakaz ikasten da zerbaist. Egindako personajeen artean, *Las chicas* (zuz.: Ivan Cerdan) filmeko personajea aukeratuko neuke akaso. Egiteko gatxa izan zan. Neska bat dago nerabzarotik ateraten eta gal-

duta sentiduten da. Bere antxinako irakasle batez bizi da baina beste gizon batzukaz joaten da. Min egiten deutso besteari eta bere buruari. Holango personaje dekadenteak gustetan jataz.

Orain dala asko ez dot antzerkirik egin eta antzerkia egitea be gustauko litxakit. Baina ingelesez antzerkia egitea gatxagoa ikusten dot. Pelikulea ingelesez egitea errezagoa da. Los Angelesen egin neban pelikulea *False Colors* gatxa izan zan alde horretatik. Horixe da nire azkenengo lana eta oindino ez da atera. Atera dan azkenekoa *La noche constante* bideoklipa da.

Una muerte anunciada (zuz.: Yingxi Ma) filmaren zuzendaria txinatarra da. Ondo moldatu zinan? ondo ulertuten zenduen alkar?

Hori be gatxa izan zan, baina azkenean lana atera zan. Egia da txinatarrari buruz esaten dana: lan pilo bat egin genduan! Ensaio pilo bat eta filmetako orduan be, ordu pilo!

Nondik nora jo gura dozu alde profesionaletik? Zeintzuk dira zure helburuak?

Nire helburua da aktore lanetatik ateratea bizimodua, eta pelikulak egitea. Bizi ez dakit non biziko nagan. Gitxi barru Los Angeles-era noa, baina hemetik urte batzuetara ez dakit non egongo nagan. Izan be, bizitza aldaketa konstantea da.



begitu
arratia ubide zeberio

www.begitu.org

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115